

**J. M. Etxeitaren *Jaioterri Maitia* (1910):
Ardibasotik Ardibasorako joan-etorria**

***Jaioterri Maitia* (1910) de J. M. Etxeita:
Viaje de ida y vuelta a Ardibaso**

***Jaioterri Maitia* (1910) de J. M. Etxeita :
Voyage aller et retour à Ardibaso**

***Jaioterri Maitia* (1910) by J. M. Etxeita:
Outgoing trip and return to Ardibaso**

TOLEDO LEZETA, Ana M.
Euskaltzaindia. Deustuko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2015-12-13
Noiz onartua: 2016-04-16

Euskera. 2015, 60, 2. 535-563. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ardibasoko artzain-lagunen abentura kontatzen du J.M. Etxeitak *Jaioterri Maitian*. Ez-kontza-baimenaren ukazioak Mexikora eramango ditu artzainetako bi eta, aurrerago, bizimodua hobetu nahiak, bide berbera hartzea bultzatuko ditu gainerakoak. Han bitzako eragozpenak gaindituz helburuak lortzean, jaioterrira itzuliko dira. Kontatutako istorioak bizitzako aro batetik beste baterako aldaketa irudikatzen du.

Hitz-gakoak: ipuin harrigarria, ezohiko gertaera, frogak, laguntzailea, ereduzkoa, iraganbide-erritua.

Jaioterri Maitia de J. M. Etxeita narra las peripecias de un grupo de pastores de Ardibaso. Los padres de una de las pastoras le niegan su consentimiento para contraer matrimonio, lo que desemboca en el reencuentro en México de los dos pastores afectados. Más tarde se irán incorporando el resto de componentes del grupo de origen. Tras superar los obstáculos que se les presentan, regresan al lugar de procedencia, habiendo logrado satisfacer sus deseos. En definitiva, relata un rito de paso.

Palabras clave: cuento tradicional, intervención sobrenatural, pruebas, ayudante, ejemplarizante, rito de paso.

Jaioterri Maitia de J. M. Etxeita raconte les péripéties d'un groupe de bergers d'Ardibaso. Les parents de l'une des bergères lui refusent leur consentement pour contracter un mariage ce qui débouche sur les retrouvailles au Mexique de deux bergers concernés. Ils seront rejoints plus tard par les autres membres du groupe d'origine. Après avoir vaincu les obstacles qui se présentaient, ils retournent chez eux après avoir réussi à satisfaire leurs désirs. En définitive il s'agit d'un rite de passage.

Mots-clés: conte traditionnel, intervention surnaturelle, épreuves, aide, exemple, rite de passage.

Jaioterri Maitia by J. M. Etxeita retells the adventures of a group of shepherds from Ardibaso. The parents of one of the shepherdesses refuse her permission to marry, which leads to the two protagonists meeting up in Mexico. Later on the other members of the original group gradually join them. After overcoming the various obstacles they face, they return to their place of origin, having satisfied their aims. In short, it relates a rite of passage.

Keywords: traditional tale, supernatural intervention, tests, helper, model, rite of passage.

Euskararen militante moduan burututako eleberri bezala aurkezten du Juan Manuel Etxeitek *Jaioterri Maitia*. Gehitzen dion «berbaurre» laburra-
ren bukaeran dioenez: «al dabenak al daben euskera garbijenaz argitaratzen
badoguz irakurgeti ta ipuin onak, beteko dogu euskera maitia garbitzeko ta
zabaltzeko daukagun egipidia»¹. Horra hor bete nahi lukeen helburua. Ha-
laber, xede moralizatzailea duen kontakizuna da, «irakurgeti ta ipuin onak»
horrek aurreratu legez.

Gauza jakina da euskal kontakizunak letretan egindako ibilbide histori-
koa ahula dela. 2004. urteraino ezezaguna izan den Lazarragak XVI. men-
dean idatzitako eskuizkribuaren zati den artzain-kontakizunaren ostean,
egun esku artean daukagun dokumentazioaren arabera, isiltasuna XIX.
mende arte.

XIX.eko argitalpenek erakusten dutenez, XVIII. mendeko Neoklasizis-
moak literaturari eskatutako erabilgarritasunaren bereizgarriari eutsiz, jorra-
gai estimatua izatera iritsiko den alegiaren barrutitik helduko zaio berriro
kontakizunari. *Ipuin onak* (1804) izenburupean plazaratzen du Bizenta Anto-
nia Mogelek, Esopo alegiagilearengandik euskaratutako alegiekin eta osaba
zuen Juan Antonio Mogelek moldatutako multzotik hartutakoekin osatu-
tako liburua. Liburuaren izenburuak iragarritakoa gisa honetan laburbil
daiteke: «ipuin» izenak, kontakizunaren esparrura igortzen du, «on» nola-
kotasun adjektiboak, bere aldetik, ipuinon ezaugarri didaktikora.

Etxeita ere ildo didaktikoan kokatzen da, aipatu hitzaurrean euskara gar-
bitu eta zabaltzeko eginkizunerako «irakurgeti ta ipuin onak» kaleratzea gal-
degiten duenean. Haren iragan hurbilak ibilitako bidea zen, hiru mende
luzetako idorraldiari amaiera jarritz, ostera ere, kontakizunak idazten hasi
zirenean. Etxeitek ez du hautsiko argia ikusia zuten kontakizun urriek adie-
razitako mundu-ikuskerarekin, aitzitik, bete-betean bat egingo du.

Honela bada, euskal kontakizun argitaratuaren hastapenetan gaude. J. I.
Ferreraren esanetan,

¹ Etxeita, J. M.: *Jaioterri Maitia* (1910). In Sarriugarte, I. (Ed.): *Jaioterri Maitia*, Bilbo: Labayru
Ikastegia, 1988, 43. Aipu guztiak edizio horretatik egingo dira.

en un novelar, sin una producción de novelas, sin un grupo de novelistas, sin una industria editorial y sin un público, no nacen, no pueden nacer títulos de excepción, obras importantes².

Eleberri bikainak sortzeko nahitaezkoztat jotako baldintza guztiak falta zaizkio euskal eleberrigintzari, gutxienez, XX. mendearen erdi ingurua ondo pasa arte: ekoizpena oso urria da, eleberrigile-talde bati buruz hitz egitea neurrigabea, argitalpen-industria bat eta publiko-irakurle bat, amets hutsak.

Euskararen iraupena kolokan sumatzen dute. Kontakizunei erantsitako aitzinsolas gehienek hizkuntzaren beharrezanekin zurrizten dute lantegiari ekiteko zioa. Bidenabar euskaldunaren portaera arautzeko bitarteko ere bihurtu zituzten. Hizkuntza indartzeko lanabes moduan aurkeztutakoa, euskaldunaren jokabidea zedarrizteko ere erabiltzen dute, ereduzkoztat daukaten balore-sistema gordetzen eta urratzen dutenen artean, sariak eta zigorrrak banatuz. Hala egingo du Etxeitak ere, garaikide zituen kontakizunen egileen asmoekin bat eginaz.

Baina, gatozen *Jaioterri Maitia* aztertzeraz. Iturri desberdinetako ekarriez baliatuz ondurik, idazleak sustatu nahi zituen «irakurgeti onen» artean berraztertzea daiteke. Nolaketan adjektibo bakarra egozteaz, «on» litzateke aukerakoa; izan ere, hainbat kontakizun-motetako osagaiak bereganatuz, hobesteko eta gaitzesteko diren jarraibideak erakusteko eran antolatzen ditu.

Badu zorrik artzain-literaturaren generoarekin. Artzainak ditu pertsonaia nagusi. Ehiztari eta nekazarien artean, artzaina da denborarik eta egokierarik handiena duena kantuan aritzeko. Etxeitaren eskutik bizitza hartzen duten artzainek, artzaintza lanbide dutenean ez ezik, nekazaritzan dihardutenean ere, artzain-kantak kantatzea dute jostaketa nagusi. Hori bai, nekazari diren garaian, artzain zirenean eguneroko gozamen-eragile zutena, igandearratsaldetara murrizten dute.

Artzainen musikazaletasuna literatur genero horren oinarrietan bertan dago. Margolaritzak berak ere hala atzeman du, ezaugarri bereizgarri legez,

² Ferreras, J. I., 1973, *Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)*, Madrid: Taurus Ediciones, 307.

musika-tresna atxiki dionean margotutako artzainari. Alboka da *Jaioterri Maitiako* artzainen musika-tresna.

Kontakizun berean bertsoa eta hitz laua batu ohi ditu artzain-liburuak. Artzainen bertsoetako gai nagusia maitasuna izanagatik, berez, ez da bakarra. Bertso hauetako ahotsen kopurua ere aldakorra da: kantua bakarriketa moduan emateaz gain, elkarriketa ere bihur daiteke. Etxeitak ere bertsoa eta hitz-laua erabiltzen ditu. Eleberriraten dituen bertsoak aipatu aldaeretara zabaltzen dira: gai desberdinak, dela bakar batek, nahiz taldekideek kantatuak, dela biren artean kantatuak taldekideek erantzuten dutela...

Artzainak behe-mailako gizarte-klasekoak ziren eta Erdi Arotik Virgilioren *Bucólicas* izana zen mota horretako idazlanik nabarmenena. Estilo apalaz baliatzea eskatzen zuen aldetik, apaindura errazaz hornitzen zenez, erretorikak halakotzat jotako figuretan aurkitzen zituen berbaldia dotoretzeko bitartekoak. *Jaioterri Maitiako* artzainak ere, behe-mailako gizarte-klasekoak dira, biziko duten istorioan lortutako ondasunek besterik dakarkien arte.

Sei artzain aurkezten ditu Etxeitak bigarren kapituluari, bakoitzaren adina eta ardurapean zuen artaldearen kopurua zehaztuz. Artzain horiek dira, Ardibasoko Jule, Tomas, Amele, Sabas eta, Agaton eta Martin anaiak. Azken kapituluari, artzainok elkarrekin jarraituko dute, hildako Agatonen anaia Martinen hutsunea, Agatonen emazte Genarek betez. Martin idi batek hil zuen gertaera erabakigarriak hasi baino lehen.

Jaioterri Maitiako artzainek alboka jo eta artzain-abestiak abesten dituzte:

Sabasek jotzen eban ederto alboka-soñuba, ta beti soñu jotzen juaten zan ardiakaz mendirutz zein etxerutz. Agaton-korkotzek erantzuten eutsan urrunetik beste alboka bategaz, ta zantzoka ta barreka, gogaldi onakaz, juaten ziran euren artaldiak eruatera bakotxa bere tokira. Sarri batu oi ziran artzañok, alboka-soñuban jantzalditxu batzuk egitera (47).

Albokarijok jotzen ebenian soñu ezaugarri bat, artalde guztijak asten ziran etxerutz juaten; eta artzañak abesauten ebezan, artzain-abestijak esaten eutsezan abesti batzuk (49).

Horiek horrela, Ardibasoko artzainek alboka-soinuaz eta artzain-abestiez egu-
nero gozaten dute, besteren artean, artzainaren bizimoduaz diharduten Sabasen
aititak sortutako abestiak abestuz, abenturarako deia heltzen zaien arte. Dei horri
erantzunez, ohikotasunetik aldendu eta, gaineratzen zaizkien eragozpenak gain-
dituta jaioterrira bueltatzen direnean, artzain-abestiak abesten daude:

Abesauten ebezan, lenagoko eurak asmauriko koplak; eta ganera,
Agatonek oraintsu asmauriko urrengo dagozanak (226).

Kontakizunak aurrenik jasotzen duen artzain-kantaren eta azkenaren
artean beste bertso batzuk tartekatzen dira, direla Sabasek Ardibasotik
agurtzeko ondutakoak, direla Agatonek, beren arteko harremanen gora-
beherak kontatuz, ezkontza-hitza emana zion Marte gazta-saltzaileari para-
tzen dizkionak, direla Sabas eta Jule Ameriketatik Ardibasora itzultzean
kantatutako «Etorrerako agurrak», direla Tomasek, Agaton eta beren sen-
diekin Ardibasorantz dakartzan itsasontzian, asmatu-rikoko koplak.

Sabasek Ardibasotik agurtzeko kantaturikoak, agurra eragin duen zioa-
rekin ireki eta ixten dira. Tartean agur esaten die artzain-lagunei, ardiei,
inguruari, bizimoduari (alboka jotzea eta artzain kanta gozoak berariaz ai-
patuz), herritarrei...

Agatonek mamitutako koplek, Marteren ezkontza-kontuak dituzte kon-
tagai. Nola ezkontza zerratuta zeukatenean, Ameriketatik etorri zitzaion
lehengusua bereganatu nahian, luzaroan eduki zuen ezkongai-
a baztertuta Martek eta, nola bazterketa-aldi horretan Agaton Genarerekin ezkondu
zen, lehengusuak senitartekoen arteko ezkontza desegokit-
zat jotzen zuelako, Marterekin ezkontzea arbuiatzen zuen bitartean.

«Etorrerako agurrak», aurrekoetako bakarrizketa elkarriketarengatik
ordezkatzten du; izan ere, Sabas eta Julek kantaturikoei, Sabasek eta Julek
bakarka eta artzainek erantzun gisa kantaturikoak batzen zaizkie. Sabasek
bakarka kantatutakoetan, Ameriketara joateko arrazoiek-
in abiatu eta, Julerekin topo egitea nola izan zen azalduko du. Gero, Julerekin batera, beren
ezkontza arteko jazoerarik garrantzizkoenak kontatuko ditu.

Tomasek moldaturiko koplek ahalik eta arinen sorterrira heltzeko gogoaz
dihardute.

Artzain literatur generoan dute jatorria pertsonaia nagusien lanbide, soinu-tresna jotze eta abestiek eratutako giro alai eta idilikoak, naturaren ikuspegi geldia eta baketsua adierazteak... Formaren ikuspuntutik, berriz, ber-soaz eta hitz-lauaz baliatzeak, estilo apala erabiltzeak...

Bestalde, gogorazi daiteke, artzain-kontakizunak ez zirela Errenazimentuan fosilduta geratu, beste zentzu eta izendapenekin jarraipena izan zutelako. Tonu idilikoko baserri edo nekazari giroko eleberria artzain eleberriaren oihartzun litzateke.

Artzain literaturaz ez ezik, abentura-eleberriaz ere elikatzen da Etxeita. Nahiz eta zenbait artzainen Ameriketarako joanaldiak isildu, itzulera guztiak kontatzen ditu. Beti arriskutsuak diren joan-etorri hauei, bahiketa, gudu, atxiloketa eta abar gehitzen zaizkie. Ataka gaiztoak bizi dituzte, azkenean, beti onik irteten badira ere. Arrisku eta misteriorik ez da falta. Pertsonaien kontakizun eta artzain-kanten txertaketak jazoeren kontaketa-aren haria etenagatik, ekintza da nagusi *Jaioterri Maitian*.

Eleberri historikoaren ukituren bat ere atzeman dakioko, gertaerak zoru historikoaren argitan behatzera gerturatu ere ez egin arren. Mexikoko Veracruz-en 1728. urteko ekainaren 24an datatzen du Basterretxe'tar Agaton-ek Basarte'tar Tomasi igortzen dion gutuna. Ia bi mendetako aldea dago istorioa idazten eta, bertan kontatutakoak, jazo ziren urtaldien artean: mende bat eta beste baten hiru laurdenak. Ez dago beste datarik, ordea. Gudu bat ere aipatzen da; horixe, aipamena baino ez, ez baita, ez zeintzuk osatzen duten alderdi bakoitza azaltzen, ez zerk aurka jartzen dituen, ez lehiak hartzen duen zabalera, ez noizko gudua den... Datu bakar bat ere ez. Hortaz, kontatzen dituen gertakizunak berauen idazketaren orainaldiarekiko urrun samar dauden alderditik soil-soilik letorkioke eleberri historikoaren ukitua: idazketaren eta kontagai diren ekintzen garaiak banantzen dituen denbora-tarte luzearengatik, hain juxtu.

Hitz batez, istorioa ez da kokatzen denboraren ardatzean. Ez da bakarrik kontatzen diren gertaeren garaia ez dela batere aztertzen, ez orduko Euskal Herriko edo Mexikoko giroaz ez dela inolako hausnarketarik egiten, baizik eta istorioa denbora mugagabe batean garatzen dela. Data daraman gutuna jasotzen du, ez horregatik, gertaerak data horrekiko harremanean harilka-

tzeko. Kontatutako istorioak zenbateko iraupena izan dezakeen sumatu ahal izateko aukerarik ere ez du eskaintzen. Testuinguru horretan, atentzioa ematen du, nola denbora mugagabe batean burututako jazoerez diharduen kontalariak, sarritan, jakinarazten duen egindako elipsiari dagokion iraupen zehatza. Elipsira jo duela agertzeaz gain, zenbat denbora barneratzen duen ere zehazten du. Pertsonaia jakinak gauzatutako ekintza bat hurrengotik zelango bitarteak bereizten duen zedarritzeko lanari gogotsu heldu izanagatik, denbora-erreferentzia hauek ez dute ahalmenik denboraren ardatzean mugariak jartzeko: elipsiak markatzeko baino ez dute balio.

Artzain-lagunen ezkontzen gorabehera, artzainon diru-aurrezte, sortzerri-min eta hauetako baten korkoxetik at gelditzen den ezerk ez du erakartzen kontalariaren interesa. Irabaziez arduratzea ezinbestekotzat ere jo daiteke, jaioterri itzultzea amets dutenei buruz ari den heinean, baita igande arratsaldetan batzen zirenean artzain-abestiak abesten zituztela errepikatzea ere, zeukaten jaioterri-min sakonaren adierazgarri eta, azkenik, korkoxen gaineko pasadizoak zama horren aringarri, baina, horrenbesteraino bildu du gune horietara arreta, istorioaren amaieran garrantzizko bihurtuko zaizkion beste kontu batzuen aurrekarietzat ez duela gorde tokirik eta, magialaria bezala, faltan botatzen duena kapelatik atera beharrean dela, bere kontaktuzunaren logika bera uneren batean hautsiz. Esaterako, Tomasek eta Amelek hiru urteko alaba zutela esan ondotik, hurrengo agerreran, izen berezi batez jabetzeaz bestalde, ezkontzera doala eransten du. Ardibasoko artzainon alaba Justek, jaioterri-mina duelako ezkontza-tratuan Euskal Herrirako etorren maiztasuna ere hitzartu nahi du, ez Euskal Herrian munduratutakoa, ez inoiz Euskal Herria zapal dutakoa izan ezin daitekeenean. Jule, Veracruzeko ospitalean gaixo zeuden euskaldunak artatzera bidali zutenean, Tomasekin eta Amelerekin aurkitu zen. Hauek esan ziotenez, zortzi hilabete zeramatzaten ezkondurik. Ez haurdunadirik, ez haurrik aipatzen diote. Beraz, Justek ezin izan Euskal Herria jaioleku.

Teknikeri dagokienez, koordinatu narratiboen erabileraren ikuspuntutik, ipuinetik eleberritik baino hurrago legoke *Jaioterri Maitia*. Pertsonaiaren ekin-tzak leku-denborazko koordinatu zehaztugabeetan garatzen dira: ezer gutxi xehatzen da gertalekua, batere ez, denbora. «Bein-batian» (52, 98, 105, 113, 152) erako adierazpenari, antzeko mugagabetasun-maila erakusten

duten esamoldeak batzen zaizkio: «Luzaro ibilli ziran» (65), «Urtiak juan, urtiak etorri» (66), «illunabarrian juan zan baten» (68), «egunak, astiak eta illebetiak juanaz» (72), «Zapatu asko igaro ziran» (90). Elipsiaren iraupena neurtzen duenean ere, ez du balio denboraren ardatzean mugarriak ezartzeko. Gainera, matazaren gorabeherak gailentzen zaizkio pertsonaien azterketari. Are gehiago: ipuinak, heroien abentura kontatzen duen ipuin tradizionalak behintzat, oso bereak dituen ezaugarri baliatzen da, hala nola jazoera harrigarri³. Gertagaitzak diren gertaerak metatzen ditu eta kointzidentziak pilatzen. Horrek ez du esan nahi errealitatean oinarritzen ez denik, baizik eta bizimodu arruntekoak diren gaiez aritzeko osagai harrigarrietara jo duela. Propp-ek *Morfología del cuentore*n segidan eman zuen «Las transformaciones de los cuentos maravillosos» en esan bezala,

El cuento maravilloso, (...) es relativamente pobre en elementos que pertenezcan a la vida real. (...). No podemos resolver el problema de la relación entre el cuento y la vida corriente más que a condición de no olvidar la diferencia entre el realismo artístico y la existencia de elementos que provienen de la vida real (161).

«Bizkaiko euskeraz iratziriko Irakurgetia» ipini zuen izenburuaren azpian. «Irakurgeti» hitzarekin egun eleberri deitzen duguna izendatzen zuten. Luzerari begira eleberri legez aurkeztu bada ere, ez horrenbeste, istorioa testura eramateko moduaren aldetik, erantsiko nuke.

Heroiek denbora mugagabe batean bizi dituzten abenturek aldaketak ekarriko dizkiete: emigratu, familia sortu, irabaziak hobetu eta itzuli. Dena den, familia osatzeari dagokionez, senar-emazteek eratzen duten guneaz soilik dihardu; izan ere, Sabas eta Jule seme-alaben guraso zirela ez du ezaugarritzen Euskal Herriratu arte. Aipamen bakarra da, zeren eta ordu arte

³ Gisa honetan mugatzen du V. Propp-ek ipuin harrigarria: «Se puede llamar cuento maravilloso desde el punto de vista morfológico a todo desarrollo que partiendo de una fechoría (A) o de una carencia (a) y pasando por las funciones intermediarias culmina en el matrimonio (W) o en otras funciones utilizadas como desenlace. La función terminal puede ser la recompensa (F), la captura del objeto buscado o de un modo general la reparación del mal (K), los auxilios y la salvación durante la persecución (Rs), etc.» Propp, V., 1977, *Morfología del cuento*, Madrid: editorial Fundamentos, 4. argitalpena, 107.

ezkutuan gordetako datuak hala jarraituko du aurrerantzean ere: une horretan baino ez ditu ahotan hartzen. Antzera jokatzeko du gainontzeko artzainekin ere. Tomasek eta Amelek, Justez gain, beste ondorengorik ere bazutela, lehen eta azkeneko aldiz, bueltatzera doazenean adieraziko du. Gauza bera gertatzen da Agatonen eta Genareren seme-alabekin.

Tomas eta Amele, Agaton eta Genare senar-emazteek itzulerarako presakuntzei ekiten dietenean, magialariak kapelatik aterako lituzkeen bezala ateratzen ditu kontalariak bikote horien seme-alabak.

Mexikon dauzkaten etxaguntzen etorkizuna ziurtatu beharrean dira herriratu baino lehen. Eginkizunari aurre egiteko, ordurako Ameriketako ibilerak amaituta, berriro Ardibaso bizileku zuen Sabasi idazten dioten gutunak eskaera bat jasotzen du: joan daitezela Mexikora Tomasen anaia Silbester eta Juleren neba Baleren etxaguntzen ardura hartzera. Eskaera betez, Mexikorako bidean jarri ziren estreinakoz izen bereziz izendatzen dituen bi gazteak. Urtebetera, jada bere egitekoez jabetuta zeudenean, Sabasen gutuna dator, esanez, guraso eta senideek gura zutela, Ardibasora itzultzeko zirenak bidaia hasi aurretik, Baleren Agatonen alaba Aurerekin ezkontzea eta Silbesterrekin ezkontzeko Ardibasotik bidaliko zutela Juleren ahizpa Miren. Hortxe jakinarazten du Agatonek eta Genarek Aure izeneko alaba bat behintzat bazeukatela. Baita Julek Miren izeneko ahizpa bat ere. Ezkontza hauen eta Justerenaren ostean, «Tomas ta Agaton euren emazte ta seme-alabakaz ontziratu ziran» (208). Horra seme-alaben agerrera bakarra, aurrerantzean ez baitute besterik izango, ez ontzian bizi izan zituzten gorabeheretan, ez gorabehera horietako bat dela eta, Londresen egiten duten egonaldian, ezta Ardibasoratu ondorengo kontuetan ere. Mexikon irabazi dituzten ondasunen kudeaketa erabakitzeke eretian, magialari bihurtzeko premia du: orduraino zeharo ezezagun edo izen bereziaren eramaile ez ziren pertsonaiak aurkezten ditu.

Ezohiko gertaeren maiztasunak, ustekabeko jazoeren metaketak, kointzidentzien pilaketak, bat-batean pertsonaia berriei sarrera emateak eta abarrek garamatza ipuinetik eleberritik baino hurbilago atzematera. Baita eredu zkotasun-balioa duen eredu narratiboa izateak ere, ipuin tradizionalako hartzaileari irabazi moralak eskuratzen zaizkion bezala, *Jaioterri Maitiakoari*

ere helarazten baitzaizkio. Nahiz Etxeitaren eleberriaren morfologiak, nahiz eraketarekin jarraibideak hobesteak seinalatzen duten ildo da. Horrengatik guztiarengatik, hain zuzen ere, iraganbide-erritua oinarri izan dezakeen istorio moduan irakurriko da gaurko saio honetan.

1. Iniziazio-erritua

Iniziazioa klan-sistemaren erakunderik bereizgarrienetakoa da. Erritua pubertarora iristean ospatzen zen. Gaztea tribuko partaide egiten zuen ospakizunak eta komunitateko benetako kide bihurtzean, ezkontzeko eskubi-dea beretzen zuen. Horra errituaren eginkizun soziala.

Iniziazioaren zikloa ipuin harrigarriaren oinarri zaharrena da⁴.

Gizabanakook mamitzen ditugun aldaketa-prozesuei lotuta daude iraganbide-errituak. Gizabanakoa bizitzako aro desberdinak igarotzera laguntzen zuten osagai sinbolikoak ziren iniziazio-errituak antzinako gizarteetan: ezaguna zenetik atera eta ezezaguna zenaren atarian barneratu, beste egoera bat lortzeko. Ezaguna zuena atzean laga eta ezezaguna duen barrutian sartzean, hasten du heroiak bidaia.

Artzainen sentimenduen iratzartzearekin abiatzen da berariaz mataza dena:

Urtiak jua, urtiak etorri, ezagutu zan Jule ta Sabasek alkarri eutsen maitetasuna, ta baita Amele ta Tomasek be. Ganera esaten zan Agaton-korkotx be, Beterriko neska gaztai-saltzalle bategaz ebillela ezkontza asmuetan (66).

Abenturarako deia jaso dute Ardibasoko artzainek. Sabasekin ezkontze baimena ukatuko diote Juleri gurasoek. Oztopoa Sabasen gizarte-klasean dakusate: otseina da. Bestalde, Julek badu eskaintza hoberik: Karlos indianoa. Julek, gurasoen ezezoari men egitearekin batera Karlosekin ere ez dela ezkonduko gaineratzen die, ekandu txarrak dituela argudiatuz:

⁴ «el ciclo de la iniciación es la base más antigua del cuento maravilloso». Propp, V., 1981, *Las raíces históricas del cuento*, Madrid: editorial Fundamentos, 3. argitalpena, 524.

Ama, ni enaz ezkonduko Sabasegaz bere, aitamok nai ezpozube;
baña Karlosegaz bez, ekandu txarrak daukazolako (77).

Gisa honetan, ohikotasunetik bereizi eta frogen aldira igarotzen dira Jule eta Sabas.

Ipuin tradizionalaren korapiloak heroia-aren ezbehar bat eta etxetik irtetea aurkezten du. Gurasoen etxea utzi eta, gaixo-zain joan zen Beterriko gaixo-etxe batera 22 urteko Jule gaztea. Egun batean gaixo-etxeak pairatutako sutearengatik, gaixo-etxea desagertzearekin, gaixo-zainak ere urrundu ziren. Gaixo-zainak aldendu zirenean, alboka jotzeko eta artzain-abestiak kantatzeko gogo amaitu zitzaizkion Sabasi. Sei hilabetera Mexikoko Veracruzera emigratzeko aukeraz baliatuz, harako bidea hartu zuen, bihotza, zeukan bezala hilik edukita, ez zuelako adorerik Ardibason segitzeko. Agurrerako moldatu zuen bertsoan, lehen ahapaldiko azken bi bertso-lerroetan, «Urrunera narube / Neure naigabiak» (79) aitortu ondoren, azken ahapaldia, Jule agurtzeko gordetzen du, zergatik jarri zen gaixo-zain galdetuz eta betiko maitasuna aginduz.

Bihotza hilik zeukan. Errituan ere, haurra hil eta gizon berri moduan pizten zela uste zen.

Beterriko gaixotegia errez gero, Juleren arrastoa galdua zuen Sabasek, bi urte etxaguntza batean lanean zeramatzanean, Mexiko hiriko ospitalean aurkituko du. Lantoki zuen etxaguntzakoak harrapatu zituen gaixotasunak Sabas ere kutsatu eta, Mexiko hiriko ospitalera bidali zuten. Hantxe zegoen Jule eta berehala ezagutu zuen Sabasek, nahiz eta gaixotasunak ekarritako itxuraldaketarengatik gehiago kostatu zitzaion Juleri Sabas ezagutzea: Ardibason zeudenean ez zeukan bizarra, gaixotasunak sorrarazitako haragi-galtzea, zurbiltasuna... begietaratzen ditu.

Batez ere, ahozko ipuin tradizionalak oso berea duen ezohiko eta gerta-gaitza den jazoera erabiltzen du kontalariak. Ardibasoko artzainek bizi dituzten abenturetan zailtasunak agerrera egiten duenean, kointzidentzia, zoria eta batik-bat Jainkoa izango dituzte lagun.

Pertsonaioi suertatzen zaizkien arrisku-une guztietatik onik ateratzeko ezohiko gertaeraren eragina hain nabarmena izanik, azkenean, naturaz

gaindiko indarren jarduna saihetsezin bihurtzen zaio kontalariari, Jainkoari edo mirariari toki egiteak erakusten duenez: «laurak, mirariz antzera, aurkitzen ziran batera atzerrijan» (136).

Izadiaren eta, salbuespenen batean ezik, logikaren arauak zaintzen baditu ere, pertsonaien gobernu kointzidentzien pilaketan, zoriaren edo Jaungoikoaren borondatearen baitan uzteak normala dena urratzen du. Ezohiko gertaeretan espezializatzen da kontalaria. Sabas eta Jule ere ohartzen dira ezohiko jazoera batek elkartu dituenaz eta, nola zori, patu eta abarrek ez duten lekurik beren mundu-ikuskeran, biek Jaungoikoaren erabakia sumatzen dute. Jaungoikoari egozten diote Mexiko hiriko ospitalean topo egin izana. Sabasek dioenez, «Nik Jule, Madriden zengozala uste neban; eta, ona emen nora ekarri zaituzan Jaungoikuak beti maite izan zaituzan gizasemeari bere gexua osatutera!» (82). Eta Julek, berriz, «Nok esango eban emen batera aurkituko giñala? Jaungoikoaren lan miragarriak dira onek gertae-rok!» (82). Ospitalean zeudela «artu eben bijak alkarregaz ezkontzeko burubidia, Juleren gurasuaren baimena lortuten bazan» (83). Beste behin ere, ordea, ezezkoarekin erantzungo diote gurasoek Julek idatzitako gutunak galdatzen zuen ezkontza-baimenari. Eroapenez itxarotea da errepikatu den eragozpenari aurre egiteko gazteek hartzen duten jarrera.

Eroapenez baimena itxaroten jarraitzeak ez du, haatik, ekintza baliogabetzen, oztopoa gainditzen lagun diezaiokeen laguntzailearen bila Sabasek emandako urratsak agerrarazi bezala. Ardibason ugazaba zuenaren semearengana jotzen du, esanez, irabazi onak dituela, mila eta bost ehun ogerlekoren jabe dela, Julerekin ezkondu nahi lukeela eta, mesedez, ahalegindu zedila haren gurasoen oniritzia lortzen. Dirudienaz, lehengo ugazabaren semeak bete zuen eskaria; izan ere, Julek gurasoengandik jasotako gutun berriaren arabera, begi onez ikusten dituzte Sabasen irabaziak eta aurrezpenak, baina Jule Ardibasora itzultzera, haiei eskuan muin egitera eta barkazioa eskatzera baldintzatzen dute ezkontza-baimena, gurasoen nahien aurka gaixo-zain joateagatik egindako hutsa ordaintzeko.

Gogoz kontra bada ere, onartzen dute Juleri ezarritako betekizuna. Beste froga bat; izan ere, bakoitzak bere aldetik Ameriketara egin bidaiak erakutsita, Sabasek eta Julek badute eskarmenturik itsasoak sorrarazten dituen

arriskueta. Kontalariak haranzkoaren gorabeherak isildu dituen arren, pertsonaiok bizi izan dituzte eta agintzen dioten joan-etorrian Juleri gainera etor dakizkiokeen galbide, kalte eta arriskuak beldurtzen ditu. Aurreikusi bezala gertatzen da: itsasoratu eta seigarren egunean hasi ziren haize eta ekaitzek eragindako kalteak konpontzeko Habanan hartu zuten aterpe. Hamabost egunetara irten eta, ekaitz erraldoiak mastak puskatu eta, itsasontzia noraezean uzten du. Ur eta janariaren errazionamendua, harik eta hamabost egunetara Lisboara zihoan ontzi batek jaso eta, «itxasketan eguraldi txar asko artuaz» (106), lurreratzen diren arte.

Oztopoak amaitu eta, itxura batean, nahia eskuratua zutenean, traba berriak galarazten du. Jule ezkontza-baimenarekin Ardibasotik iristean, Sabas giltzapean dute, guda gogorraren erdian lantoki zuen etxaguntza hartu zuten soldaduei aurre egin zielako, nagusiaren ondasunak babesteko. Jule joango da atxilotuta daukaten lekura eta, gatibuak bere eginbidea bete baino ez duela egin argudiatuz, presoa askatzea eskatuko dio agintariari. Bi mutil hil izanagatik, Sabas hiltzeko agindua edozein unetan hel daitekeela eta, Mexikon dagoen goragoko agintariarengana lehenbailehen jotzea aholkatzen dio solaskideak. Mexikoko Apolinar izeneko agintariarekin bildu aurretik Sabasen ugazabarekin batuko da. Hiru bider ukatu diotela Sabasen askatasuna jakinaraziko dio ugazabak, baina, Jule agintariarekin elkarriketatzen denean, honen emazte Juste izango du laguntzaile. Zortea beste behin ere! Agintariaren emazteak Julek bere buruari ahots goraz euskaraz esandakoa ulertuko du. Justek aitortzen dionez, euskaldunak zituen gurasoak eta beti maitatu ditu euskal herritarrak. Horregatik, aginduko dio: «Egingo dot al dodana zeure alde» (109). Agintariak emaztearen hitzak bere egin ondotik, bi hilabeteren buruan askatzea hitzematzen dio, nahiz eta aurretik gerra bukatu izanak Sabasen gatibualdia laburtu zuen.

Gainditu dute elkarrekin ezkontzeko jasandako azken froga: «Hainbeste naibage ta gora-bera igaro ta gero, eldu ziran, euren maitetasun zintzuaz, eldu biar eben tokira; alkar maitetuaz, alkarregaz bizitera» (111).

Ezkontzarekin ez zaie bukatu frogen garaia, ordea. Ezkontzeko zeukaten behaztopa-harriak jaioterritik urrutiratu ditu. Zoriontsu ziren Ardibasoko artzainok, Juleren gurasoek ezkontza-baimena ukatzean, zoriona galdu zu-

ten arte. Ohiko bizimodutik bereiziz eta zailtasunei aurre eginez bilatzen zutena aurkitu badute ere, lorpenarekin herriratzea dute, haatik, eginkizun. Gizarte-klaseak eragozten zion ezkontzak atera zuen Sabas Ardibasotik eta honekin ezkontzeko ezezkoak Jule; orain, berriz, garaipenarekin bueltatzeko tenorean daude. Itzuleraren ataria igarotzeko eretia da.

Abenturarako deiari erantzunez, atari bat iragan zuten, irteerarena, inimizazio-prozesuan sartzeko. Iniziazio-prozesuan frogei nagusitu ostean, itzuleraren atarian barneratzeko unea da. Irteera eta inimizazio-prozesua mingariak izan dira. Halakoa izango da itzulerarena ere.

Etorrerarako hartu zuten «Loyola» ontzian, eguraldi oneko egunak arztain eta euskal abestiez gozatuz, ekaitz egunak, ostera, ikaraturik, ematen zituztela, ezohiko gertaera berri batek asaldatuko ditu: ontziko bidaiari bati urre gorritan lapurtutako mila ogerlekoak Sabasen ohe azpian agertu dira. Giltzaperatu zutenean, Jaungoikoaren laguntza eskatu zuen. Julek, gatibu zeukaten senarrarekin batera egotea galdegin eta gero, biek laguntzaile berarengana jo zuten, Jaungoikoarengana. Ezohiko beste jazoera batek konponduko du arazoa: ontziko bidaiari batek lapurreta aitortzen du. Kontalariaren arabera, Jaungoikoaren laguntza jadetsi zuten Sabas eta Julek:

Bai Jaungoikuak ezaban nai izan errueza katigu egon zeitian (169).

Itzuleraren atarian barruratu zirenetik jasandako frogak goituta, Sabasek gogotsu besarkatu zituen Juleren gurasoak. Baita hauekin bizitzen geratu ere, eurentzako etxea egin arte.

Sabasen gurasoei buruzko zertzeladak kontakizunaren hastapenetako zeharkako aipamen soil batera mugatzen dira, pertsonaia nagusiak aurkeztean adierazitako «Goiketxeak euken seme bakar bat» (46) baino ez. Horren bazterrean lagatako etxera nekez itzul zitezkeen Sabas eta Jule, baina, aldi berean, garbi dago kontalariak egin hautua: Juleren jatorrizko etxera bihurtzen dira. Hala gertatzen da beti ipuin tradizionaletan, senarra emaztearen leinuan sartzten da eta horregatik harreman matriarkalaren isla moduan behatu izan da ipuin tradizionala.

Ardibason hasitako bidaia Ardibason bukatu da, zailtasun guztiak menderatu eta gero. Elkarrekin ezkontzea jomuga, egunerokotasuna bertan

behera utziz, bikoteak bizitako abentura amaitu denez, buelta daitezke berriro ohikotasunera, abiapuntukoarekiko desberdina den egunerokotasunera, egin duten bidean berenganatutako irabaziei esker. Julek eta Sabasek badute gura zutena, Sabasek oztopo zuen gizarte-mailak sorrarazi dizkien ibilerak azkentzean. Ardibatoratu eta, bigarren egunerako, artzainekin artzain-abestiak abesten daude «euren antxiñako artzain aldirian abesauten ebezan lez» (173), Sabasek asmatutako etorrera agurreko bertsoekin itxiz saioa. Ardibasotik urrutiratu zituen bidaiaren aurretik artzaintza ogibide eta zaletasun zutenek, jada ez dute ogibide, zaletasun huts baino, Sabas eta Julek «zeuken lan-arazorik eta euren atsegin ezitsubena izaten zan, auzoko artaldia goizaro mendiratu ta illuntzian etxeratzia; beste etxietako artzañakaz artzain-abestijak abesauteko goguz» (179).

Propp-en azterketak erakutsi zuenez, ipuin harrigarri tradizionalak igarobide-errituak adierazten dituzte. Ipuin hauetako heroia iniziatu gaiarekin bat dator eta bere borroka inimizio-frogen metafora da. Froga hauei nagusitzean heroiak altxor bat eskuratzen du (inimizio-ezaguera), balentria aintzat hartzea eta, familia sortzeko eskubidea. Noraezean Ameriketara emigratzean igaro zuen Sabasek errituetako sarbidea eta, han, lehen behaztopa-harriak gaindituta familia eratzea lortu ostean, Ameriketatik Ardibatorako etorreran jasandako azken froga garaituta, bere komunitatearen aitopena jasoko du.

Ardibasoko beste bi artzain ere jarri ziren Mexikorako bidean: Tomas eta Amele. Ardibasotik Mexikora joanak zirela kontatu gabe zeukanean, bat-batean, beste ohiz kanpoko gertaera batez baliatuz jakinarazten du kontalariak.

Veracruzzen zabaldu zen izurrite ikaragarria zela eta, hango ospitale batera bidali zuten Jule. Hiru hilabetera, Julek lantoki zuen ospitalera senar-emazte euskaldun batzuk eraman zituztela eta, hauek artatzeko eskatu ziotenean, nor izango senar-emazte euskaldunak eta, Tomas eta Amele izan. Gaixo zeuden arren, ez zitzaion gertatu Sabasekin bezala: berehala ezagutu zituen. Amelek Juleri esaten dionez bizimodua aurrera ateratzea izan dute atzerriratzeko zio:

Tomasenian ziran bost nebarreba, ta Tomasentzat ezeguan ezkontzari apur bat baño; nire aldetik, nebiarentzat zan etxaguntzia, ta

niretzat ezkontzari apurtxu bat. Ezkeunkan basetxe bat non bizi, ta gengozan geure aitamak elikatuten gendubezala geuk lanetan lagundubaz; baña nire nebia ezkondu ezkeru, ezin bizi izan giñeitezan etxe atan. Orregatik, Amerikatara gizadija biralduten ebiltzan salerosliak agertu ziranian (...) artu genduban ona etorteko burubidia (96).

Hilzorian egotera iritsi ziren Jule eta Amele sendatu ondoren, Takigapo etxaguntzan otsein moduan lanean hasi ziren Tomas eta Amele, baina, zergatik ez zekitela, ugazaba haserre zeukaten. Horretan, ugazabaren bi semeetako bat zauriturik aurkitu zuten, berba egiteko ere gauza ez zela. Tomas, Amele eta zauritutakoaren anaia giltzaperatu zituztenean, Tomas eta Amelek Jaungoikoaren laguntza eskatu zuten: «Sarri egiten eutsezan eskarijak Jaungoikuari zelanbait argitu eien gertaera guztijen edestija» (131). Tomas eta Amele preso zeuzkaten presondegian bisitatu eta gero, Sabasek Takigapo etxaguntzara jo zuen, zaurituaren gurasoei, besteren artean esatera, sortutako auzian Jaungoikoak bitartekaritza egingo zuelakoan zegoela:

baña uste dot Jaungoikua jarriko dala bitartez auzi orretan, bako txari bere sarija edo zeatzia emoteko (131).

Sabas igarleak igarriko du. Berrero, ezohiko jazoera bat tarteko helduko da laguntza: seme zaurituak hitz egiteko ahalmena berreskuratuz, anaiak jipoitu zuela aitortzen du. Horra hor, Sabasen usteari eta, Tomas eta Amelearen eskaerari erantzuna.

Gertatuak gertatuta, Takigapo etxaguntzan jarraitzerik ez zutela bere eginda zeukaten Tomasek eta Amelek, nagusia jakinaren gainean jarri aurretik, atzera ere, laguntza jasotzen dute: dirudienez, Sabasi hil berri zaio langile bat eta honen lekua betetzea eskaintzen die, berrogei ogerleko soldatarekin Tomasi, eta, hogeikoarekin, Ameleri. Besterik ere egiten du Sabasek: Ameriketara joateko agindu zizkioten lur eta etxeak eskuratu ezinik zebilen Tomasi, hauek bereganatzen lagundu. Non emango lurrok eta, Sabasen etxaguntzatik hurbil samar: beste behin ere, zortea lagun. Horiek horrela, aurreratuta zeukan diruarekin alogereko izatea utzi ahal izan zuen Tomasek eta eragozpenak gaintituz, oreka beretu. Jai egun guztietan, bi bikoteak biltzen ziren «ta guztiz gogotsu abesauten ebezan Ardibason gazetetan abesau oi ebezan artzain-abestijak» (136).

Oraindik, ordea, Tomas eta Amelerentzat ez da amaitu frogen aldia. Lapur batzuk Tomas bahitu eta, berreskuratze saria galdegiten diote Ameleri.

Sabas Ameriketatik Ardibatorantz zekarren itsasontzian atxilotu zuteanean, honen emazte Julek harekin batera atxiloketa pairatzea aukeratu bezala, Amelek ere, diru-ordainketa egiteko hitzartutako elkartzegunean itxarongo du Tomasengana eraman dezatela erregutzeko bahitzaileei. Eskaria onartu ziotenez, bahituta zeukaten tokian batuko dira senar-emazteak. Lapurrek Ameleri galdetzen diotenean, «Zegaitik azartu zara, gau illunian etorten ezagututen eztozuzan gizonakaz?», honek, «Il zein bizi, senarra alikarriñen ikusi nai izan dodalako; orain ondo nago ilteko be, senarragaz» (187) ihardetsiko du.

Larrialdia igarotakoan gogoratuko dira galeraz. Tomasen hitzetan, «Geure ekinialako lanakaz urte batzuketan irabazi doguna, eruan deuskube» (187). «Artu eruapena» da ezbeharrari aurre egiteko modua. Baina, Sabas eta Jule eroapena hartzeari lotu zitzaizkionean, Sabasek laguntza eskatu eta erdietsi legez, Tomas eta Amelek ere laguntza jasoko dute, Mexikoko epailearen jardunagatik. Epaileak, lapurren berri zuenak Auzitegira jotzeko jakinarazi zuen. Hala egin zuen Tomasek, baita soldaduak bahituta eduki zuten lekura gidatzeko prest azaldu ere. Lapurrek atxilotuta, dirua bihurtzeaz gain, sakelako urrezko erloju bat oparitu zioten Tomasi bide-erakusle izateagatik.

Kontalariak aurkeztutako sei artzainetatik bostek izango dute atzerria bizileku, bosgarrena ere, Agaton korkox, Ameriketara joango baita. Esan bezala, seigarrena, Martin besobakar, Ardibasoko artzainen abenturak hasi aurretik hil zen, idi baten erasoaren kariaz.

Sabas, Jule, Tomas eta Amele Mexikon jai egunetan biltzen zirenean artzain abestiak abesteko «utsune andi bat ikusten eben: Agaton-korkotx alboka soñuba jotzen, izaten zan gaztetan bosgarren artzain-laguna, ta aren utsunia eguan euren artian» (137). Sabasek dioenez, «irabaziko jubek biziteko biar daben gaña, baña ona baletoz, uste juat gehiago irabaziko leukie-la» (137). Tomasek arreba Genareri, Agaton korkoxen emazteari, zuzendutako gonbitari abegi ona egin zioten hauek, zeren eta «diru gutxi aurreratuten eben, eta urrunera jua bihar izan arren, irabazbide obiaki poztu ebazan» (139).

Diruarekin ala gabe, itzultzeko asmo sendoarekin abiatzen da Agaton: Ardibason nahi luke betiko atsedean hartu. Negarrez agurtu senitartekoak eta «Ijeldo» ontzian itsasoratzen da emaztearekin batera. Bidaiek arriskutsu izaten segitzen dute: izu-ikararik gutxitan ateratzen dira. Hasteko, Bermeoko txalupa bat hondoratu izanak, Santanderren gelditzera behartu zituen hondoratutako txalupakoak lurreratzeke eta beren ontziak jasandako kalteak konpontzeko. Atzera itsasoratu zirenean, beste ontzi batek jo eta, kalte berriei aurre egiteko A Coruña dute hurrengo geltoki. Zailtasun hauek igaro eta, ostera ere, bidaia jarraitzeko direnean, Genare, Agatonen emaztea, «Osasunaz eltzen bagozak, beste bein orraitiaño enaiubek arrapauko itxasuok. Jakin izan banejuban olako galbidiak dagozala, ni etorri? Bai zera!» (143) esatera daraman kinka larrian sartzan dituen ekaitzak harrapatzen ditu.

Ardibasoko bost artzainak Ameriketara batu behingoz eta, hurrengo igandean bertan, «Agaton eta Sabasek antxina lez alboka soñuba jotzen iardubela, ta toki atan abesau ebezan gogotsu Ardibason gaztetan abesauten ebezan artzain-abestijak» (146).

Tomas eta Amelek bueltatzea erabakitzen dutenerako, Agaton eta Genarek ere, diru-egarri handiagorik ez eta, prest daude hauekin batera etortzeko. Ardibason ondo bizi izateko beste baliabide daukatenean, Sabas eta Julek bezala, herriratzea dute jomuga.

Aurretik itzuli ziren bi artzain-lagunen bidaia gorabeheratsuen parekoa jasango dute. Egun politak izango dituzte «Oiz-mendi» itsasontzian, ekaitzak estutasunak dakartzkien arte. Ekaitzaren osteko lasaitasun-egunak beste itsasontzi batek jo zituenean bukatu ziren. «Oiz mendi» arin hondatu zenez, beste ontzia dute aterpe. Jaso zituen ontziak elikagai gutxiegi eta, lehen egunetik bertatik, janariaren errazionamendua, Ingalaterrako itsasbaterrean sartu ziren arte. Londresen iragandako hogeit eta hiru egunen buruan, Bilborako ontzia eta hemendik zaldi-gurdian Ardibasora. Ardibaso izan zuten beti Lurbira honetako zeru. Azkenik zeruratu dira. Berrero, eguero euren abestiak abesten dihardute Ardibason.

Artzainok tokiko heroiak dira, noski; ez unibertsalak. Kontatutako istorioak banakoaren helburuetara biltzen du arreta, biktima hobengabeei eta gizartean gauza handirik ez daukatenei egin dakizkien ordainetara. Garai-

penetik eskuratutakoa heroiak berak gozatuko du. Norbere etxearen gobernurako erdietsitako altxorra da.

Kontalariak kontakizunaren hasieran zehazten du artzainon adina: neskak hogeitaz azpitik dute; mutilak, hogeitaz pasa berri. Bizitzako legea da gurasoen zaintzapean hazi ondotik, heldutasunerako jautzia egitea, nor bere familia eratuz. Gizarte-bizitzan aro batetik bestera igarotzeko dagoen premia du oinarri iraganbide-errituak. *Jaioterri Maitiako* artzainek gurasoen babespean bizitzetik irteteko adin-modua harrapatua dute.

Zilbor hestea bigarrenez eteteko tenorean daude. Bigarren etenaldia familia osatzeko da, baina maitasun-mailako harremanez harateko eskakizunak ditu, ondorio ekonomiko jakinak dituelako: familia berria gune autonomoa da.

Hiru bikote nabarmentzen ditu eta bakoitzarekin egoera desberdin bat irudikatzen. Hiru mutilek gabeziaren bat dute: Sabas otseinak ez du maite duen Julerekin ezkontzeko beharko lukeen posizio soziala. Tomas nahiz Amele, ez dira oinordeko; Agatoni, berriz, korkoxak ezkontza-eskari bat zapuztu dio, Doroteri luzatutako ezkontza-eskaria, hain juxtu, baita zerratua zuen ezkontza bat ere, Martek korkoxik gabeko lehengusu indianoaren gizarte-maila hobetsi zuenean. Hala, otseina izateagatik, oinordekoa ez izateagatik eta korkoxiduna izateagatik pairatutako nahiezak behin betikoz bukatzeaz gainera, Ameriketara lortutako irabaziek beren komunitatean irabazle legez aurkeztea ahalbidetuko diete: «Tomas, Jule ta Ameleren nebarrebak eta Agatonen anaieak be, Ameriketara juateko gogo andijaz egozan, jakin ebenian diru asko eukela Ardibasotik juan ziran guztijak» (171). Itzultzean, beren etxeak eraikiko dituzte Ardibason. Bat ez ezik, bi. «Sabas ta emaztiak artu eben etxe bi alkarren onduan eregiteko burubidia; bata eurak bizi izateko, ta bestia (...) maizter bat bizi izateko. (...) eta juan ziran bizi izatera euren etxe barrira. Juleren neba ezkonduko bat, (...) alboko basetxera (...). Onek emongo eutsen etxagunari, artzen eben uzta guztijaren amarrena, urteko sari edo alorgetzat» (179). «Tomas ta Agatonek artu eben (...) etxe eder bana egiteko burubidia, albuana maizterrentzat beste etxe bana ebela» (225). Ziurtasuna, aterpea eta babespea sinbolizatzen dituen etxea Ardibason jasotzen dute.

Honela bada, Ardibasoko artzainok, emaleen laguntzarekin heldutasunerako iraganbideak zituen baldintzei erantzun diete. Bidaiak sorrarazi dizkien frogak gainditzean ateratako onurekin Ardibason daude:

Ardibaso izan zan beti euren Lurbira onetako zeruba, ta azkenian araxe biurtzeko gururijaz egiten ebezan alegiñak, onbidiak jarraitubaz euren irabazbidietan. Jaungoikuak lagundu eutsen atsekabietan, eta zorionaz eldu ziran jaioterrira: aitamak besartetu gogoz ta Aritx-tantaipian euren abesti maitiak egunaro abes egitera (226).

Abenturaren deiari jaramon eginaz ibilitako bideak heldutasunerako jauziaren eskakizunak ondo baino hobeto betetzea ekarri die: ezkondu, familia eratu, etxe baten jabe egin eta inoren menpeko langile izan gabe, beren zaletasunari emanak bizi.

2. Ereduzkotasuna

Etxeitak *Jaioterri Maitian* ezkontzak, ezkontzetarako gurasoen baimenak eta aberastasun-kontuak metatzen ditu. Horra hor bere interesguneak. Ezkonduen ondorengoez berri emateak ere ez du erakartzen. Ardibasoko artzainek seme-alabak izan zituztela ez du iragartzen jaioterrira bueltatzea erabakitzen duten arte. Sabasek eta Julek Donostia zapaltzen dutenean hartzen ditu ahotan, lehen eta azkeneko aldiz, hauen umeak: «senar-emazte bijak, seme-alabakaz» (170). Berdin jokatzan du gainontzeko artzain-lagunekin, «Tomas ta Agaton, seme-alabakaz, jaioterrira juateko asmuetan ebiltzazanian» (198).

Denbora-tarte zabaleko elisio ugari egiten dituen *Jaioterri Maitiako* kontalariak, zenbaitetan harrigarriak ere suerta daitezkeen elisioetara jotzen duenak, —aurreko pasartean adierazitakoa, kasu, artzainok familia izan zutela itzuleraraino ezkutatzeari, gurasoen ezkontza-baimenik ez du behin ere isiltzen istorioan zehar aipatzen dituen ezkontza anitzetan. Bederatzi ezkontza aitatzan ditu, inoiz alboratu gabe ezkontza-baimena jakinaraztea. Zenbaitetan, ezkongaiaren gurasoek jarritako ezkonsaria ere zehazten du.

Ardibasoko bizilagunak eta hauekin harremanetan daudenak aberatsak ez direnez, asko estimatzen dute ongizate ekonomikoa. Azken finean, modu

batera ala bestera, guztien kezka da bizimodua erraztuko duten baliabideak edukitzea⁵. Jule eta Sabas ez ditu arduratzen, baina hauen nahia betetzeko ere nahitaezko izango da.

Nola ez da izango, bada, on desiratua bizitza-maila hobetzea, Juleren gurasoen burua lausotu eta, maite zuen otseinarekin ezkontzea ukatzen diotenean; Tomas eta Amele nora joanik gabe geratzen direnean Ameleren baserriko oinordekoa ezkontzean eta, Martek Agatonekin zerratuta zeukan ezkontzari lehenesten dioenean!

Esan den moduan, Etxeitak banakoaren helburuetara biltzen du arreta, biktima hobengabeak eta gizartean ezer askorik ez dutenak lagunduz. Artzainetako bakar batek ere ez du gauza handirik, biktima nagusia, halere, Agaton da. Badirudi daukan akatsarengatik ordainketa nabarmenagoa egin gura diola honi, atsekabe bat baino gehiago sorrarazi dion korkoxa eramatearen laztasuna gutxituz.

Maite zituen neskekin Agatonek baino ez du frakasatu artzain-taldean. Horietako batean, korkoxa zeharo erabakigarria izan da; bestean, korkoxaz gain, diru-iturrien neurriak ere zerikusia izan du. Zertzelada hauek bultzatzen zezaketen Etxeita akatsaren zama arintzera.

Mintzagai den ordainketa nabarmenagoaren zantzua, pasadizo desberdinek kontatuz, kontalariak korkoxari irekitzen dion tartean dago. Korkoxadunei buruzko kontuak, betiere, akatsari garrantzia kentzera bideratzen dira. Era berean, ordainketa nabarmenago horren zantzu izan daiteke, Mexikoko atzerrialdian, gainerako artzain-lagunei ezarritako oztopoetatik aske utzi izana, baita Ardibasoratu diren beste bi bikoteen lorpenak menderatu-tresna bihurtu ez dituenen, Agatoni, arbuiatu zuten bi nesken aurrean garaile azaltzeko aukera eman izana ere.

Nahiz eta Ardibasoko artzainen eragozpenak gainditzea gertaera guztien akuilu izan, ikaskizuna ez da, horregatik, Ameriketara aberastu eta sorterrira itzuliko zara jatorrizko komunitatearen aurrean zure etekinak erakustera.

⁵ «Martek gogo betiaz nai eban ezkondu Agatonegaz, Ardibasoko etxietan egiten ziran gaztaiak erostia ziurpetzeko» (114).

Ardibasoko artzainek hala egin badute ere, Etxeitak argi adierazten du atzeriratutako guztien esku ez dagoela. Kausen azterketa saihestuz, bi frakaso ere aipatzen ditu. Bata da, Sabas eta Julek jaiolekura bueltatzeko hartu zuten «Loyola» ontzian mila ogerlekoak ostu zituenarena: etxeraino iristeko beste diru ez izateak eragin du lapurreta. Bestea, berriz, urre hautsak biltzen zebilela jasandako istripuak hil zuen Michel-pelota durangarra da, «Urre-zalako / Berton geratuba» (163), azpian harrapatu zuen harriaren gainean irakur daitekeenez. Itxura, bi etsenplu hauekin ondorioak zehaztea bilatzen du: «Amerikak egin» gabe gelditutakoak ere badira. Laguntza izan dutelako itzuli dira garaile pertsonaia nagusiak, baina artzainok izan duten babesa ez du normahik erdiesten.

Artzainek beraiek aitortzen dutenez, Jaungoikoaren laguntza izan dute. Iraganbide-errituaz jarduterakoan azalduenez, bizi izan duten abenturan laguntzailearen zeregina ezinbestekoa izan da. Ez da edonork lor dezakeen bitartekoa: aurreko pasartean aurkeztutakoak lekuko. Ameriketara joandako ezezagun horiek gerizatuko zituen laguntzailearen baten gabeziarengatik frakasatu duten bezala, heldutasunerako prozesuan laguntza jaso duten artzainon aurrean, Ardibasoren inguruetan ere badira zaindaririk gabe geratutakoak. Beraz, behatu beharra dago zerk bereizten dituen batzuk besteengandik.

Laguntzaileak heroiaren portaeraren zuzentasuna egiaztatzen du (bere ontasuna, eta, oro har, joko-arauden ezagutza) eta arrakasta bermatzen dio. Naturaz gaindiko indarrek balentria gauzatzera laguntzen dute. Ardibasoko artzain-lagunen aro batetik besterako jautsian horrela gertatu den arren, ez da hedatzen *Jaioterri Maitian* aldaketarako abagunean zeuden pertsonaia guztietara. Laguntzaileak beren jokaera desegokitza jo duen seinale.

Agaton korkox mespretxatu zuten bi nesken itxaropenak ez dira bete. Genarerekin ezkondu baino lehen Dorotek esana zion Agatoni, «Ez, Agaton, etxubat biar korkotxik» (86) eta kontalariak dioenez, Martek «Ziurziur uste eban lengusuba beragaz ezkonduko zala, ta siñismen onegaz zelan gomuta izango eban lepuan tontorra eukan senargeia?» (115). Irabazpide hobe zuten indianoengatik erdeinatu zuten bi emaztegaien aitzinean garai-pena erakusteko egokiera du Agatonek, biek, Dorotek eta Martek, naturaz

gaindiko laguntzarik gabe, frakasatu dutenean. Agatonen arabera, Jainkoak zigortu du Dorote, bide onetik urruntzeagatik: «eta gizabide orregaz, Jaungoikuaren bidietatik aldentuten danak, geienean idoro oi jon zoritxarra; aberastasunaz arroturik, aldendu intzanan bide onetik; baña ikusi don, Jaungoikuak zeatzen dauzala egite txarrak» (221). Dorotek onartzen dio esana, baita barkamena eskatu ere. Berdin egingo du Martek.

Agaton ezagutu zutenean zeukaten ogibidearekin jarraitzen dute: gazta-saltzaile. Doroterekin ezkonduako lehengusu indianoa, «aberats samar eguan; baña zoritxarrak amaitu ebazan laster bere dirubak eta bera» (221). Agatonekin ezkontzekotan zen Martek ere lehengusu zuen Polentzi indianoa hobetsi eta, honek senitartekoarekin ezkontzea gaitzesten duela adierazten dionerako beranduegi da, ordurako Agaton Genarerekin ezkondu dagoelako. Paulin mandazain zarkotearekin ezkontzeko aukera baino hobetik ez zaio iristen eta, dirudienez, mandazainaren irabaziek ez dute ahalbidetzen etxeoandre bihurtzea: lehengo lanean dihardu, gazten salerosketan.

Horra zigortzen dituen emakumeak. Hauek ez dute jadetsi laguntzailerik sartu diren atakatik aterako dituenik. Laguntzaileak izan dituzten emakumeak Jule, Amele eta Genare dira. Saritzen eta zigortzen dituen emakumeen arteko bereizgarri nagusia honakoa da: ereduizkoak, gizonezkoek alderdi ahulen bat izanda ere, maite badute, ahuleziak ez ditu batere atzerarazten.

Jakinarazi denez, alderdi ahulen baten jabe dira Etxeitak moldatzen dituen hiru artzain gizonezkoak: Sabas otseina da; Tomas, oinordekotza indarrean daukan gizarte batean ezkonsari apur bat baino ez daukana; Agatonek korkoxa du. Gizonezkoaren alderdi ahul horrek ez zuen inolako bazterketa-rik eragin ez Jule, ez Amele, ez Genarerengan; izan ere, Genareri «ez utsan ardura Agatonen tontorra gora-bera» (115), baina korkoxik gabeko indianoak hobesten dituzte Dorotek eta Martek. Agaton korkox erdeinatu zuten bi emakumeak zigortzen ditu Etxeitak.

Ereduzko emakumeen ezaugarri da, halaber, maite duten senarraren patuarekin bat egitea. Gizonaren laguntzaile izan. Gizona da liderra eta erabakiak hartzen ditu, emakumea jarraitzaile leiala den bitartean. Senargai zuen

Sabas soldaduek giltzapetu zutenean, diren eta ez diren ibilera gaitzak egin zituen Julek preso zeukaten agintariei aska zezatela galdegiteko. Senargaia-
ren patuari horrenbeste uztartu nahi zaio, «Neure senargeia da, jauna, ta
ilten badozube, bera ta neu ilgo gara» (108), esateraino heltzen dela. Jarre-
ra berbera erakusten du Ameriketatik Ardibasorantz dakartzan itsasontzian
lapurreta salatuz, Sabas atxilotzen dutenean: berarekin gatiba dezatela es-
katzen du.

Amelek ere, Julek bezala jokutzen du. Senarra bahitu ziotenean ezkuta-
tuta zeukaten lekura eraman zezatela erregutzen duen Amelek, bahitzaileak
beraiek zurturik uzten dituen mendi-ibilera luze eta neketsua egingo du.

Marte eta Genare eskuetara ere etorriko dira Agaton dela eta. Geroago,
Agaton Ameriketatik itzuli ondoren, Marte gatzak erostera joaten denean
Agaton eta Genareren etxera, Genarek senarra defendatuko du, Marteri
egotziz lehenaldiko gorabeheren errua.

Gurasoek maite zuenarekin ezkontzeko baimena ukatzean, saritutako
beste bi emakumeek –Amelek eta Genarek– pairatu gabeko behazto-
pa-harria gaineratzen zaion Jule, beste ikasgai bat gehitzeko bitarteko bihur-
tzen da. Gurasoen esana okertzat jo arren, esaneko izaten jarraitu eta, eroa-
penari lotuz, haien oniritzia izan arte itxaron zuen. Karlos indianoa zen
Juleren amarentzat egokiena; kontakizunak, alabaina, txarto zebilela frogat-
tuko du. Etxeitak Juleren aukera hobesten du, desegokia izan den gurasoen
erabakiari zigorrik ezarri gabe, horregatik. Zigortzen dituenak aro batetik
besterako iraganbidea zuzen egin ez dutenak dira. Juleren gurasoen jokaera
salaketa hutsean gelditzen da.

Seme-alabak ezkontzeko adin modura iristean, gurasoei dagokie baimena
ematea. Egoera horretan badakite gurasoek beren gurariak seme-alaben zo-
rionaren aurretik jartzen. Hala egin zuten Juleren gurasoek, Sabas otseina
zelako bi gazteon arteko ezkontza baztertzean. Sabasen ordeztu, Karlos india-
noa nahi lukete, Juleren ezezko borobila jasoaz.

Ordurako Domingo Agirrek *Kresalan* (1906) adierazita zeukan ikuspegia
berresten du Etxeitak. Gurasoen baimena nahitaezko baldintza da ezkon-
tzeko. Gizartean indarrean dagoen araua da. Lau urte lehenago Agirrek
esana zuen *Kresalan*:

Sarri dakie gurasoak etxeko seme-alaben zorigaiztoa egiten: baztuk (...); da, geienak, semealabak bizi bide barria artu bearrean edo ezkongei dagozanean, umien zorionari baño euren (gurasoen) uste ta gogoari geiago ta obeto begiratu oi deustielako.

Alperrik da esatea osoro ta geiago eziñean maitetuten dituela euren umeak. Ori danok dakigu, baño, nire ustez, maitetasun guztien azpian, sustrai barruan, biotz mamiñean, bakotxak norbere ondo-naia, norbere buruaren maitetasuna idoroten dau bestienganaoagaz nastean, da gurasoak be bai euren.

Orregaitik, seme alabak ezkontzeko egunetara elduten diran eretian, gurasoak eztira euren guraria ukatu gura, euren gogo betekoa eztana eztabie nai etxean, naiz da izan semien gurarikoa, ona, adjutua, elizkoia, ta langille maratza etxera ekarri gura dan mutil edo neskatillea. Ta guraso askori gogoa beteteko, dirua ta ondasuna izaten dira gauzarik onenak. Euren iritxiz, etxejauntzakoak etxejauntzakoakaz ezkondu bear dira beti, maizterrakaz maizterretakoak.

Egia da, semien gañean, Jaungoikoak eta Izakiak emoniko aginpi-dea daukiela gurasoak, eurai jagokela esonde ta erakusmen zuzenak emotea; baño eztabie aztu bear euren aginpide ta esanetan Jaunaren legeari ta seme-alaben onari begiratu bearrean dagozala. Zarrago diran aldetik argi geiago euki daroe, ta erakutsi daiela euren gogamena: baño ez beti jarraitu eragin, seme alabak errukarri izateko zori ta agiñean ipiñiaz.⁶

Ardibasoko bizilagunek badute antzik Agirrek *Kresalan* itxuratutako Arranondokoekin. Batekoek eta bestekoek, salbuespen bakanen batekin, irabazi urriekin gobernatu behar dute beren egunerokotasuna eta testuiguru horretan bada seme-alabak ezkontzeko garaira heltzean, gaizki portatzen den gurasorik. Jokaera okerraren eragilean ere bat datoz: seme edo alabarentzako ezkongai epaitzeko irizpide nagusia honen errentak izatea. Ardibason eta Arranondon diru-sarrerak hobetzeari asko begiratzen zaio.

⁶ Agirre, D., *Kresala* (1906). In Villasante, L. (Ed.): *Kresala*, Oñate: Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, 1976, 115-116.

Oker zebiltzan *Kresalako* Anjel eta Mañasiren gurasoak, baita Julerenak ere, baina, aita-amen begiko den ezkongaiak gogoko ez izanagatik, Etxeitak ere, Agirrereren «semien gañean, Jaungoikoak eta Izakiak emoniko aginpidea daukiela gurasoak» horri eusten dio, ezkongaiari esaneko izatea eskatuz eta gurasoen aukera onartezina bazea, eroapena hartzea gomendatuz. Joko-arauari atxikitzen zaio Etxeita, nahiz eta gurasoen erabakia ez dela beti zuzenena argi eduki. Esan gabe doa: bi eleberrigileek eroapena hobetsi ostean, kontakizunaren hariak erabiliko dituzte, guraso batzuen ahuleziak agerian ipintzeko eta hauei arrazoia kenduz, zintzo jardun duten seme-alabak saritzeko, beren guraria lortzen lagunduz.

Besterik ere irakasten du Etxeitak. Senitartekoen arteko ezkontzak desegokiak dira: erdiz erdi asmatu zuen Marteren lehengusuak, bien arteko ahaidetasuna elkarrekin ezkontzeko eragozpentzat aurkeztu zionean; izan ere, Adelaida izeneko neskaekin ezkondu eta gero, ez dirudi inolako arazorik izan duenik. Ikusita nahiezen bat duten bikoteez arduratzen dela, ezkontza horren osasunari buruzko berririk eza, iraganbidearen eskakizunak gorde dituen seinaleztat har daiteke, bestela, kontatuko baitzukeen. Ameriketatik etorritako lehengusuarekin ezkondu zen Dorotek irudikatzen du ahaideen arteko ezkontzaren desegokitasuna, zigortua izateak erakusten duenez.

Etxeitak ez du adierazten ahaideen arteko ezkontza baztertzera eraman zezakeen zioa eta, horrenbestez, ez dago ezagutzerik. Agian, geroago euskal kontakizunak jasotako gertariaren beldur da, J. A. Irazustaren *Joañixion* (1946) azaldutakoarena, hain juxtu. Ameriketara aberastutako Joañixio Euskal Herriratu ondoren ilobarekin ezkontzen da. Ezkontzatik jaiotako seme-alabak gaixoak dira⁷. Dena den, Etxeitak Doroteri ezarritako zigorrak ez du zerikusirik ondorengoekin, bizibide-mailarekin baino: gazten salerosketara bihurtu behar du berriro, lehengusu indianoaren zoritxarrak senarrik eta honen ondasunik gabe laga dutelako.

Bidegabekerien artean, indartsuagoaren eraso ere salatzen du.

⁷ Ik. Irazusta, J. A., 1946, *Joañixio*, Buenos Aires: editorial Ekin.

Gizona emakumea baino indartsuago da eta honek jasandako indarkeria mendekatzea dagokiona, auzitegiaren esku uzten ez bada behintzat. Marteren senar Paulin mandazainak Agatonekin borrokan egingo du Marteri koplak jarri izana leporatuz. Agatonen anaia sendoak banatuko ditu.

Jule ezkontza-baimena eta barkazioa eskatzeko gurasoek Ameriketatik etortzera derrigortu zutenean, amarekin etxerantz zihoan batean, gizaseme batek jo zuen. Ilun egonagatik, ezagutu zuen: berarekin ezkondu gura zuen Karlos indianoa zen. Oihal-saltzaile zen Karlos etxera joan zitzairenean, Agaton korkoxen anaia morrosko batek, honela esan zion: «Orixe zan bada egin zenduban lanik txarrena, emakuma bat jotia. Bere neba jo izan bazenduban eneutsun ezer esango, baña urtenbiderik eztaukan gizalabia jotia, egin leikien egitade txarrena da» (105). Juleren neba bien asmoei aurreratu zitzaion Agatonen anaia morroskoaren jipoia zorra kitatzeko bestekoa izan zela epaituz, bertan behera utzi zuten beren egitekotzat zeukatena.

Euskal jatorriko Akillin Mexikoko korkox aberatsaren semeak eta, Tomasen eta Ameleren alaba Justek, ezkontzeko gurasoen baimena dutenean, orduraino aipatu gabeko Makari izeneko sendagile batek egiten du agerrera Justeri zaplada ederra eman eta ihes egiteko. Makarik Justerekin ezkondu nahiko zukeen ustean oinarritzen dute erasoaren zioa. Balerenek –Juleren nebak– eta Silbesterrek –Tomasen anaiak– jipoitu nahi bazuten ere, azkenean, epailearengana eraman zuten auzia. Aitorpenen ondoren sei hila-betetako kartzelara zigortu zuten.

Oinarri bat baino ez dute ikaskizunek: ereduzko portaera saritu eta arbuiatzen dena zigortu, salbuespen bakarrarekin; izan ere, gurasoen hutsegi-tea seme-alaben ezkontza-baimenetan, salaketa soilera mugatzen da. Seguru asko Agirrek baieztatu moduan «semien gañean Jaungoikoak eta Izakiak emoniko aginpidea daukielako» gurasoek eta, Jainkoarengan jatorria duen eskumena izanik, aginte horren erabilera txarra bera ere ezin zigor daitekeelako.

J. M. Etxeitak bizitako edo atzemandako errealitatearen erretratu bat eskaini zuen eta adierazteko, modu errealista ipuin tradizionalaren morfologiagatik ordezkatuz, kontakizun-eredu honek erakartzeko eta jarraibideak erakusteko dituen ahalmenez baliatu zen. Ipuin tradizioaletan bezala, ahu-

lak zaintzen ditu. Ahula mendekoa da, gainetik norbait edo zerbait izateagatik: gurasoak, ugazaba, indartsuago dena, akatsik gabekoa, anaiarik zaharrena. Mendekotasunen bat pairatzen duten artzainok babesten ditu Etxeitak: Sabas posizio sozialetik, Jule gurasoen lausotasunetik, emakumeak gizakumearen erasoetatik, Tomas eta Amele oinordekotzaren ondorioetatik, Agaton korkoxaren akatsetik. Bizi izan duten abenturan laguntza eman die garaile atera daitezten.

Bibliografia

Agirre, D.: *Kresala* (1906). In Villasante, L. (Ed.): *Kresala*, Oñate: Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, 1976.

Etxeita, J. M.: *Jaioterri Maitia* (1910). In Sarriugarte, I. (Ed.): *Jaioterri Maitia*, Bilbo: Labayru Ikastegia, 1988.

Ferreras, J. I., 1973, *Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)*, Madrid: Taurus Ediciones.

Irazusta, J. A., 1946, *Joñixio*, Buenos Aires: editorial Ekin.

Propp, V., 1977, *Morfología del cuento*, Madrid: editorial Fundamentos, 4. argitalpena.

———, 1981, *Las raíces históricas del cuento*, Madrid: editorial Fundamentos, 3. argitalpena.